

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Proiektu guztietan bezala, bezeroa da gure oinarria, noski, bezerorik gabe proiektu bat martxan jartzea bideraezina delako. Horregatik, azterketa sakon bat egin ondoren, gure aplikazioari gehien egokitzen zaion pertsona mota erabaki dugu, hau da, bezero-eredua definitu dugu, eta jarraian horien ezaugarri orokorrak aipatuko ditugu.

Garraio publikoan oinarritzen diren, eta puntualitatea kontuan hartzen duten pertsonetan zentratuko gara. Ezaugarri orokorreki dagokienez, pertsona honek ez du autorik, hala ere, erregulariki toki batetik bestera mugitzeko beharra du hainbat arrazoi direla eta, lana, ikasketak... Beraz, nonbaitera garaiz iristea ezinbestekoa da ondorio larriak eduki ez ditzan.



Gainera, efizientzia eskertzen du, eta behar duen informazioa eskura izatea gustatzen zaio. 16 urte baino gehiago ditu, adin horretatik aurrera, askatasuna eta esperientziak bizitzeko grina sortzen zaigulako, horregatik garrantzi handia hartzen du garraio publikoak. EAEko biztanleentzat pentsatuta dago, momentuz gure jaioterriko eremuan lana egitea pentsatu dugulako, beraz, hemengo garraio publikoa dugu burupear, honi buruz ezagutza handia dugulako. Hizkuntzari dagokionez, hasiera batean aplikazioa gaztelaniaz eta euskaraz egongo denez erabilgarri bezeroak hauetako bat behintzat hitz egin beharko du.



Orokortasuna alde batera utziz, gure proiektua ezaugarri zehatz batzuk dituzten pertsonentzat bideratuta dago. Alegia. aplikazioa, beraien kabuz mugitzeko zailtasunak dituzten bezeroentzat egina dago. Zailtasun hauek, mota askotakoak izan daitezke: gurpil-aulkia izatea, lesio baten ondorioz ibili ahal ez izatea, adina dela eta oinez ibiltzeko arazoak izatea, baina orokorrean mobilitateari dagokionez elbarrituak direnak. Egoera hauek pairatzen dituzten pertsona gehienek ezin dira beraien kabuz EAE ingurutik mugitu, eta guk eskaintzen dugun zerbitzu hobekuntzak, gure ustez, honi konponbidea jarri diezaioke.

Eman ditugun arrazoiengatik, bezero ideal honetan zentratuko gara gure proiektua ahal bezain arrakastatsua izan dadin.